

Aretxagazeta

ETA GAINERA...

Ze barri?

ASTEKO GAIA


Lokalak etxebizitza bihurtzeko araudia /08

EUSKARA

Herriko berbeta ikertzeko hitzarmena /09

LEINTZ GATZAGA

Wi-fi sistema martxan jarriko dute /10



ANTZINAKO ALTXORRAK HERRIKO ARTXIBO HISTORIKOA EZAGUTUZ

GUARDIAKOFARMAZIA

ZAPATUA, 4
FRAILE. Herriko Plaza 10..... 943 79 21 99

DOMEKA, 5
FRAILE. Herriko Plaza 10..... 943 79 21 99

TELEFONJAKINGARRIAK

OROKORRAK

| | |
|----------------------------|--------------|
| Almen | 943 71 49 07 |
| ARETXAGAZETA | 943 79 86 21 |
| Faxa | 943 77 18 54 |
| Basotxo | 943 77 09 81 |
| Euskaltegia | 943 79 21 68 |
| Gizarte laguntzailea | 943 71 18 62 |
| Hezibide elkarte | 934 79 31 32 |
| Industrialdea | 943 79 62 80 |
| Institutua | 943 79 79 00 |
| Kirol etxea | 943 74 26 28 |
| Kultura etxea | 943 71 10 27 |
| Kurtzebarri Eskola | 943 79 00 49 |
| Kurtzebarri BHI | 943 79 57 40 |
| Liburutegia | 943 71 18 62 |
| Loramendi EE | 943 77 09 70 |
| Ludoteka | 943 79 05 81 |
| Mahkomunitatea | 943 79 30 90 |
| Murruxiko ME | 943 79 93 74 |
| Musika Eskola | 943 79 36 50 |
| Osasun etxea | 943 79 19 59 |
| Otalora | 943 71 24 06 |
| Parrokia (bulegoa) | 943 79 18 42 |
| Pausoka Haur Eskola | 943 77 03 77 |
| Postetxea | 943 79 28 31 |
| Basabeazpi Ikastola | 943 71 21 18 |
| Saretxo | 943 71 26 56 |
| Taxi geltokia | 943 79 22 33 |
| Udal Bulegoak | 943 71 18 62 |
| Udaltzaingoa | 943 71 18 63 |
| Urats Gain | 943 79 99 11 |

UDALTAINGOA
Arrasate

LARRIALDIK
SOS Delak

MEZAK

ANDRA MARIAREN ZERURATZE PARROKIA
Domeketan: 11:00, 12:00
Zapatuetan: 19:30
Lanegunetan: 19:30

SANTA RITA
Domeketan: 09:00
Zapatuetan: 18:30
Lanegunetan: 08:00

BASERRI AUZOETAN: LARRIÑO
Domeketan: 12:30

MENDIOLA
Domeketan: 12:00 (Otoitzaldia bakarrik)

GELLAO
Domeketan: 11:30

OHARRAK

AKORDEOI KONTZERTUA
Gaur, egubakoitza, 20:30ean, akordeoi kontzertua izango da, parrokian. Kirill Chitybine akordeoi jotzaile errusiarrak eskainiko du kontzertua.

OTOITZALDIA
Parrokietako eta elkarte erlijiosoetako kide guztientzat. Abenduaren 7an, 21:00etan, San Pedro parrokian, Eskoriatzan.

KOFRADIAREN BILERA
San Martin-San Jose kofradiaren urteko bilera egingo da abenduaren 8an, 11:00etan, Kurtzebarri eskolako gimnasioan. 2003ko balantze ekonomikoa egin, eta kide berriak izendatuko dituzte.

ERAKUSLEIHO LEHIAKETA
Abenduaren 8tik 31ra. Aretxabalétako dendari guztiek parte har dezakete. Sariak emateko orduan, imajinazioa, orijinaltasuna eta mezua hartuko dira kontuan. Epaimahaia Kultura Batzordeko kideek osatuko dute.

DANTZA TALDEAN ESKU HARTZEKO AUKERA
Egubakoitzetan euskal dantzak ikasi nahi badituzu, Leizarra eskolara hurbildu. Egubakoitzetan, 15:45etik 16:45era bitartean izaten dira eskolak.

LORAMENDIRENAGENDA

IKASTAROA SUKALDARITZA MAKROBIOTIKOAZ
Abenduaren 14an izango da, eta parte hartu nahi dutenek izenematea egin behar dute Loramendin. Silvana Huegun adituak emango du ikastaroa.

LEHIAKETAK
XVI. Literatur Lehiaketa deitu du Loramendik. Lanak abenduaren 21a baino lehen entregatu behar dira.

ORAINDELA 5 URTE ARETXABALETAN

Parrokia proiektu berrian murgilduta

1999an egindako ikerketa baten arabera, Aretxabaletan 500 pertsona inguru joaten zen elizara. Datu horren ildora, parrokian parte hartzen zuen taldeak hausnarketa prozesua hasi zuen. Proiektu bat egin zuten orduko egoera aldatzeko. Fedea indartu eta sakontzeko helburua zuten.



IPUIN KONTALARIA
Maite Franko
Abenduaren 14an
18:00etan

Abenduaren 14an ipuin kontalaria bat etorriko da herriko liburutegira, hainbat ipuin kontatzena. Maite Franko da ipuin kontalariaren izena, eta 5-6-7 urte bitarteko umeendako ipuinak kontatuko ditu.

Gabonak ate joka ditugula eta, Eguberritako ipuinak izango dituz ardatz. Ipuin batzuk Maitek sortutakoak izango dira, eta beste batzuk dagoeneko argitaratuta daudenak. Gainera, umeen parte-hartzea bultzatzeko, ipuin batzuetako protagonistak umeak izango dira, eta moztu ere egingo ditu.

JON IRAEGI

JOSEBA LOPEZ DE ARMENTIA

BERTAKOBERBAK/ Juan Martin Elexpuru

“Larritu”

— Umea falta dela ikusita larritu egin dira.



Adi!

Zorionak! Zorionak! Zorionak!

EKAINAREN 7tik AURRERA
Zorion agurrak
ASTELEHENEKO
GOIENKARIAN!

Goienkaria
astelehenean, aste bukaera osoa

Gainera...

Zorion agurrak, SMS bidez!

Senitarteko, lagun, ezagun edo gustuko duzun neska/mutila bere urtebetetzean zoriondu nahi baduzu, Asteleheneko Goienkaria-k beste aukera bat emango dizu: SMSa bidaltzea.

Horra, horra, gure Olentzero...


EGUZKIGRAF

Zorionak eta Urte berri On! inprimategia


25. urteurrena

1979-2004


ATREBENTZIAEZPADA/ Apaindu biher dozu dendako eskaparatie Gabonetarako? Zelan?



GELI DOS SANTOS
Tibos zapateiakue



JON DIAZ
Jon karnazeiakue



ROSI MNEZ DE LA HIDALGA
Rosi drogeriakue



ALBERTO MARTIN
Martin relojeiakue



ENEIDA EGURZA
Alboka dendakue



VICTORIANA SANCHEZ
Nurr kortinak

Apainketako asmue dauket, oso inportantie da eta eskaparatie ondo eukittie. Niretako lelengo aldixe izengo da, eta Udalan konkursuen parte hartzeko asmue dauket.

Apaindu denda barrue, baiñe eskaparateik ezin, ez dauket eta. Urtero aldaketan dot zerbait, baiñe normalien Olentzero eta jaiotza ipintten dittut. Errifak be emuten dittut.

Apaindu, bai, baiñe nire modure. Hala eta be, ahal doten eta onduen. Kapitalan eta gustetan jat eskaparatiek ikustie, eta herrixen be ipiñi biher! Behin konkursue irabazi neuen.

Leku gutxi dauket eskaparatie, eta nahixau dot gauzak jarri, baiñe bai, emaztiek apainketan dau. Inportantie da ondo ipinttie, jentiek begixekin erosten dau eta.

Pentsau dot gutxi gorabehera zelan egin. Algodoie eta ebaliko dittut aurten. Olentzero be ipiñiko dot. Uste dot inportantie dala eskaparatie apainketie, baiñe herrix be bai.

Gauza tipikuekin jantziko dot eskaparatie. Muñeka batzuk, Olentzero, Belengo jaiotza... Gauza haundirik ez, baiñe zerbait, bai. Eskaparatie bakarrik jantziko dot, denda barrue, ez.

TXALOAKETATXISTUAK



TXISTUAK BETIKO BANKUAK Araba ibilbidean jarraituko dugu aste honetan ere, beste herritar batek eserlekuen inguruko kexua azaldu nahi du eta. Duela gutxi inguru horretako lanak bukatu, eta berriro lehengo eserlekuak jarri dituztela esan digu. Bere esanetan, oso zaharkituak daude eserleku horiek, eta, behin ingurua txukunduta, berriak ipini beharko lituzkete./M.A

ETABARRUAN...

- | | | |
|--|---|--|
| KULTURA/04 Udal artxiboa ezagutuz Marijo Urteagari egin diogu elkarrizketa, udal artxiboa antolatzear arduratzen denari. | BILERA/05 Kofradiak bilera du San Martin-San Jose kofradiak bilera egingo du abenduaren 8an, eta hainbat gai eztabaidatu. | KIROLA/06 Fran Miguel maratoian Donostiako maratoia egin zuen joan den domekan, eta ondo bukatu gainera. |
|--|---|--|

ASTEKODATUA

22

KOFRADIAKO 22 LAGUN HIL DIRA AURTEN


Kofradiak urteko balantzea egin du, eta iazko abendutik aurtengo azaroaren 30era arte, kofradiako 22 lagun hil dira. Normalean urtero 40ren bat hiltzen dira, beraz, aurtentz askoz gutxiago.

BESTEKEESANA

“ Aralar ez da inoiz Batasuna izan. Batasunarekikoa, zatiketa baino hautu pertsonala izan zen. **”**
Batasunaren barruan ezker abertzalea ez zihoan bide onetik. Ezker abertzalea beste oinarrietan finkatu beharra ikusi genuen. Aralarrek bere bidea urratuz ondorio baikor asko ekarri du. Esate baterako, Batasuna prozesuan nagusitu zen Bateginez ildo ez da gauzatu. Eta ez da gauzatu, besteak beste, Aralar sortu zelako eta Bateginez ildo eraman ezina zelako. Aralarrek beste ildo bat jarri du mahai gainean. Eta ez da hori bakarrik. Gizartea jabetu da, ezker abertzalearen aukera bakarra ez dela borroka armatuari onarpen moduko bat ematen dion ildoarena, Batasunaren aukera, kasurako.

XABIER SARASUA
ARGIA/04-11-07

HERRITARRENBERBAK/ Aitor Agiriano



Irakurtzeaz

A benduko lehenengo asteburuak urteroko Durangoko Euskal Liburu eta Disko Azoka ekarri digu. Hemen ere, Behobiako lasterketan moduan, urte osoan ezer irakurri ez duten irakurle mordoak elkartuko dira. Baina ondo. Musika entzuten dela jakin badakit. Irakurtzea baina, askorentzat neke handia dela dirudi. Gero eta jende gutxiagok irakurtzen du.

Egia da askotan liburuak meloien antzekoak direla: gustuko (on) bat topatzeko hoge probatu behar izaten dira eta. Baina bueno, gauzak horrela dira. Gauza guztien moduan hartu, probatu eta erabili beharrekoak dira. Ohitura kontua da. Irakurketak duen ahuldaderik astunena eskolan dagoelako nago. Eskola garaian hasten gara irakurtzen normalean. Beti ere azterketa batek baldintzatuko duen irakurketa mota batekin. Eta minutuan X hitz irakurtzen badira hobeto, eta hatzarekin

ilarak seinalatzen ez badira askoz hobeto. Eta horrela ba... Bikain lortu arte. Irakurtzeko metodo hori, gustura irakurtzeko behintzat, oso metodo antzua da. Ez da egongo ba ikaslea irakurketara hurbiltzeko beste modu eraginkorragorik.... Nahikoa da zerbait

egiteko agintzea gauza hori bera ez egiteko. Eskolako ikasbideak aldatzen ez diren bitartean mamuak uxatzen jarraitu beharko dugu.

Liburuak eta, oro har literaturak, iraganarekin, orainarekin eta

etorkizunarekin lotura oso estua dute. Edozein idazkiren ostean beti dago mezuren bat, kritikaren bat. Irakurritako ados egotea, kontra egotea, zalantza...joko horrekin hartu behar da kontu hau guztia. Denbora-pasan.

Batzuk gehiago, besteak gutxiago, denek eskainiko digute zerbait. Liburuak, bideek eta egunek jakituria dakartela dio arabiar esaera batek.

“Liburuak eta literaturak, iraganarekin, orainarekin eta etorkizunarekin lotura oso estua dute”



BESTEAKBESTE

M. J. Aretxaga

Gabonak ondo hasi

Boligrafue gordetan noie, 17ra arte ezer ez idazteko esan doztie eta. Hala ta be, badauket ondio be, Gabonak zorionketako astirik.

Gabonak ondo hasi dittuena, **Amagoia Unanue** izen da, behintzet zapatuen pozik ikusten zan neskie Bittorixan erosi eta erosi. Telebisinuen ikusi neuen nik neuk. Kontue da Bittorixako denda batzuk zorteue egin, eta Amagoiai tokatu jakola 3.000 euro. Eta zapatuen diru hori dana gastatu biher euen denda horreitan. Ez jakon askoik kostau, segittuen gastau zittuen 3.000 euruek. Nik be, Amagoia, segittuen gastauko nittuzke.

Eta beste batzuei be, ondo etorriko jakien nota onak atara arren emun dotzian premixue. Joan dan astien **Leire Blazquez** agertu zan rebistan, baiñe, **Maitane Barrenetxea** izeneko atxabaltar batek be premixo hori jaso dauela jakin dot. Kutxa bankuek emun dotzie premixue, eta milla eurotik gorakue danez, honeik be ondo hasi dittue Gabonak.

ELKARRIZKETA

MARIJO URTEAGA/UDALEKO ARTXIBO HISTORIKO ETA ADMINISTRATIBOAREN ARDURADUNA

“Galartzatik beste norabait eraman beharra dago artxibo historikoa”

MARIA AGIRRE

Ez da historialaria, baina Aretxabaleako historiaren gainean badu ezagupenik, herriko artxibo historiko eta administratiboaren antolaketaz arduratzen baita. Garai bateko zein gaur egungo dokumentuekin dabil.

Zein da zure lana Aretxabalean?

Astean behin etortzen naiz, artxiboaz arduratzera. Artxibo historikoan kontsultak begiratzeta eta udaletxean gaur egun sortzen diren dokumentuak artxibatzea da nire lana. Artxibo administratiboa deitzen zaio azken horri, eta egun, horrekin ari gara. Artxibo historikoa, berriz, duela urte batzuk antolatu genuen, eta egun, Galartzan dago, armairu batzuetan.

Artxibo historikoari dagokionez, zein eskari egiten du jendeak?

Ez dira eskari asko egoten, baina izaten direnek arbasoekin dute zerikusia; hala ere, badira zerbait zehatza jakin nahi izaten dutenak ere. Urtean hiruzpalau eskari izaten dira. Horretaz gain, ikertzaileak etortzen dira, zuhaitz genealogikoa egitera edo ikerketa zehatzen bat egitera.

Zelako artxibo historikoa du herriak?

Nahiko ona, baina hutsuneak badira, urte batzuetako dokumentuak falta baitira. Hori, hala ere, normala izaten da. Baina fisikoki zaindu egin beharko da, baldintza egokietan. Galartzatik beste norabait eraman behar da, Galartzan hezetasun handia bai-

tago. Herrira ekartzeko asmoa dago, artxibo historikoa herrian egoteak zentzu handiagoa baitu.

Zehazki zer dago artxibo horretan?

Denetarik. 1700etik aurrerako aktak daude eta auzi mordoak, epaitegia udaletxean egoten baitzen. Bestetik, herritarren errolda, eta baita udaletxera heltzen ziren gutunak ere.

Eta artxibo administratiboari dagokionez, zer egiten duzue?

Hori askoz ere konplexuagoa da, baina gaur egun interes handia du. Dena antolatzea izan da egin dugun lehenengo gauza, espediente bakoitzeko hainbat kopia egiten baitziren udaletxean. Orijinalak bakarrik utzi ditugu. Horren ondoren, dokumentu elektronikoen lanean hasi gara, horrelako gero eta gehiago baitago. Jarraipena egiten diegu udaletxean sartzen diren espediente guztiei. Historikoa 1975. urtera artekoa da, eta hortik aurrerakoa administratiboa.

Zaila da zer bota eta zer ez bota erabakitzea?

Ez. Hiru irizpidetan oinarritzen gara: legala, administratiboa eta historikoa. Dokumentu asko, gainera, errepikatu egiten dira. Artxiboa antolatzea lan mekanikoa da. Hori bai, lagungarria da tokian tokiko historia ezagutzea eta antzinako grafia irakurtzen jakitea.

Informatikoki kontsulta daiteke?

Artxibo historikoaren datu basea eginda dago kontsultak egiteko, eta momentuz udaletxera joan daiteke kontsultaren bat egiteko.



MARIA AGIRRE

“Artxibo historikoa herrira ekartzeko asmoa dago, herrian egoteak zentzu handiagoa baitu”

“1700etik aurrerako aktak daude, auzi mordoak ere bai, eta herritarren errolda”

Jar zaitez moda

25 urte azpikoek %20-ko deskontua izango dute Gorka ilepaindegian zuri dagokizun estiloa aukeratuko dugu

- Asteartetik ostegunera, 09:30-12:30/ 14:30-19:30
- Ostiraletan, 09:30-19:30
- Larunbatetan, 08:00-14:00

KULTURA / Leizarra musika eskolak Gabonetako kontzertua eskainiko du hilaren 21ean

Musika emanaldiak eta pintura erakusketa datozen egunetan

M.A

Gabonak ate joka ditugunez, herriko elkarte batzuek ekitaldiak antolatu dituzte. Hala nola, Leizarra musika eskolak Eguberriko kontzertua eskainiko du hilaren 21ean. Herriko emakume margolariak, berriz, pintura erakusketa zabalduko dute hilaren 13an.

Pintura erakusketa udaletxeko ganbaran jarriko dute, hilaren 13tik 17ra. Pintura erakusketan esku hartzen duten hamar emakumek egindako lanak jarriko dituzte ikusgai. Guztira 30 koadro. Paisaiak eta ostatuak izango dira nagusi.

KONTZERTUAK

Leizarra musika eskolak, berriz, kontzertuak antolatu ditu. Hilaren 15etik 20ra, pandero, trikiti-xa, klarinete eta tronpetak kontzertuak izango dira, besteak beste, akademian bertan. 200 bat gaztetxok hartuko du parte gutxi gorabehera.

Hilaren 21ean, berriz, Gabonetako kontzertua eskainiko dute parrokiak. Baina ez da hori izango parrokiak egingo duten kontzertu bakarra. Hilaren 18an, akordeoi orkestraren emanaldia izango da. Horretaz gain, hilaren 26an, abesbatzak eskainiko du kontzertua parrokiak. Hainbat kantu gregoriano abestuko dituzte, baina herrikoiak ere bai.



AITOR LIZARRALDE

Pirritx eta Porrotx pailazoek *Patata patata* ikuskizuna eskainiko dute urtarrilaren 8an.

BESTE EMANALDI BATZUK

Gabonetako oporraldian, ume eta gaztetxoendako ekintzak nagusituko dira herrian. Hala nola, urtero moduan jolas egiteko parkea jarriko dute kirol etxean. Hilaren 27an eta 28an izango da. Baina umeak erakarriko

dituen beste emanaldi bat Pirritx eta Porrotx pailazoena izango da. *Patata patata* azken ikuskizuna antzetzuko dute, joan den astean Eskoriatzan hain arrakastatsua izan zen ikuskizuna.

Hori guztia, baina Eguberri-tako ohiko ekintzak ere bai.

Abenduaren 24an, herriko guraso eta umeek Gabonetako kantuak abestuko dituzte goizean. Iluntzean, berriz, Olentzerok herria zeharkatuko du, eta jaiotza jarriko dute herriko plazan. Urtarrilaren 5ean, bestalde, errege kabalgata egingo dute.

LABUR

Kofradiak bilera egingo du taldea berritzeko

San Martin-San Jose kofradiak urteko bilera egingo du hilaren 8an, 11:00etan. 2003ko balantze ekonomikoa baiko-rra izango da, aurten inoiz baino lagun gutxiago hil baitira. Kofradiako bazkideei dagokienez, 22 hil dira aurten, eta normalean 40 lagunekoa izaten da kopurua. Era berean, taldeko zuzendaritza batzordea berritu egingo dute, eta lau kide berri aukeratu dituzte. Juan Antonio Martinez de Agirre, Jokin Bengoa, Jasone Gorroño eta Elisabeth Izagirre aterako dira talde-tik. Azken hori presidente izan da azkenaldian, beraz, kofradia berrituak presidentea ere aukeratu beharko du aurrerago.

Astean sinatu dute hitzarmena Badihardugurekin

Joan den martitzenean sinatu zuten hitzarmena Aretxabaleta, Eskoriatza eta Leintz Gatzagako udalek Badihardugu elkartearekin. Horren ondoren, ahozko ondarea jaso eta antolatzen hasiko da Badihardugu. Hainbat herri-tarri elkarrizketak egingo dizkiete, zelan berba egiten duten jasotzeko. Herriko hizkera aldatuz doanez, orain lan hori egitea garrantzitsua dela uste dute.

Mobiliario
ARENZA

- ALTZARIAK
- DISEINUA
- APAINKETA

Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABAleta



MAPFRE
Aseguroak

Errekabarren 3
Aretxabaleta
Tel.: 943 77 11 76

Mortin
erloju-denda

Bere bezeroen
zerbitzura

Mitarte 16
Tel.: 943 79 01 72
ARETXABAleta

PIENSO
SUNZUE S.A.

FELIX PAGALDAY

Laborantza tresnak
Ongarriak- Haziak

Mitarte 7 behea
ARETXABAleta
Tel.943 77 00 33/79 42 56

Jauregi
Okindegia

Otalora 10
Tel.: 943 79 57 47
ARETXABAleta

IRIARTE

Umeen
denda

Helduen
lentzeria



Durana 8
Tel.: 943 79 10 96
ARETXABAleta

Lie

LURRINDEGIA
OPARI DENDA

Mitarte 18 • 943 79 38 59
ARETXABAleta

BENGOA
URDAITEGIA

Bertako okelak
eta mortzilak

Durana 9. Aretxabaleta
Tel.: 943 79 19 79

ARQUERO
CONSTRULAN S.L.

ERAIKUNTZA ETA INDUSKETAK

Tel.: 943 79 01 51
Basabe poligonoa 4, EQ-11 • ARETXABAleta

Zuzendaria:
Lyonel
Arquero

Dekorazioa:
Soraya
Arquero

FRAN MIGUEL/DONOSTIAKO MARATOIA EGIN DU

"Uste nuen gehiago sufrituko nuela Donostiako maratonia egiten"

MARIA AGIRRE

Joan den domekan egin zuen Donostian bere bizitzako lehenengo maratonia. Hiru ordu eta zortzi minutu behar izan zituen 42 kilometroak egiteko. Pozik dago emaitzarekin, helmugara iristea baitzen bere helburua.

Lehenengo maratonia?

Bai. Domekan Donostian egin-dakoa izan zen nire lehenengo maratonia.

Eta zer moduz bukatu zenuen?

Ondo bukatu nuen, eta pozik nago. Helburua bukatzea zen, eta egindako denbora aldetik ere ez dago gaizki.

Gogorra izan zen?

Uste nuen gehiago sufrituko nuela. Lehenengo 30 kilometroetan ondo ibili nintzen, baina ondoren gaizki sentitzen hasi nintzen. Horregatik, erritmoa jaitsi, eta hortik aurrera ondo joan nintzen. Hala ere, nekatuta bukatu nuen.

Zergatik maratonia?

Askotan entzuten nuen maratoien inguruan hitz egiten, eta azkenean helburu bat jarri nion nire buruari: maratonia egitea. Entrenatzen hasi, eta maratonia bukatzea posible izango nuela ikusi nuen.

Zenbat entrenatu zara?

Apirilean hasi nituen entrenamenduak. Bost edo lau urte ziren ez nuela korrikarik egiten, eta berriro hastea erabaki nuen.



M.A.

"Lehenengo 30 kilometroetan ondo, baina ondoren gaizki sentitzen hasi nintzen"

Behobiakoa egin zenuen?

Bai, eta hura gogorragoa izan zen. Anaiaren zenbakiarekin egin nuen, eta erritmo biziagoan ibili nintzen.

"Behobiako lasterketa gogorragoa izan zen, erritmo biziagoan ibili nintzen eta"

Hemendik aurrera?

Azkoitiko maratoi erdia egingo dut datorren urtean. Baina orain, 20 egunez, deskantsua hartuko dut.



Zuhaitza Alberto Etxebarriaren omenez

Eliza Berrin zuhaitz bat landatu zuten joan den zapatuan, Alberto Etxebarriaren omenez. Izan ere, egun hartan egin zioten omenaldia irailean hil zen aretxabaletarrari. Goizean Kurtzebarri, Albertoren errautsak zabaldu eta *Bidaiari bati* idatzita duen plaka agerrarazi zuten. Ondoren, abrikotondo bat landatu, herrira jaitsi eta bazkaria egin zuten. Iluntzean, argazki emanaldia eta Arrasate Musikal bandaren kalejira izan ziren. Albertori omenaldia eginez bukatu du Murruxiko elkarteak aurtengo Mendi Astea. Joan den astean, mendiaren eta bidaien inguruko emanaldiak izan ziren, elkarteak antolatuta.

LAU PARTIDU JOKATUKO DIRA BIHAR ETA FINALAK HILAREN 18AN

Esku pilota txapelketako final erdiak jokatu dira bihar, zapatua kirol etxean

Esku pilota txapelketa azken txanpara iritsi da, eta bihar, zapatua, final erdiak jokatu dituzte pilotariek. Goizeko 11etan, Juan-txu eta Unai Uriartek, Anartz Agirre eta Xabier Larrañaga izango dituzte aurrez aurre. Ordu erdi beranduago, berriz, Asier Muxikak eta Jose Mari Carrillok, Iñaki Korta eta Iraultza Iturberen aurka jokatu beharko dute. Eguerdiko 12etan, Asier Heriz eta Agerre, Lier Gracia eta Joseba Otxoaren aurka arituko dira. Bukatzeko, Ibai Gonzalez de Duranak eta Aitor Galdosek jokatu dute, Iban Isasti eta Argider Isastiren aurka.

JAUSORO OSTATUA



Durana kalea 18 1.ESK
ARETXABALETAKO

Tel.: 943 79 89 69
Sakelakoa: 656 74 81 61

AZKARATE
aroztegia

943 76 47 19
eta 610 88 40 20

ateak • leihoak
horma-armairuak
tarimak • parketak

LANTOKI BERRIA
LABEGARAIETAKO
INDUSTRIALDEAN
BERGARAN



Esko Sport

Intxaurtxueta 5
Eskoriatza
Tel.: 943 71 52 96



Zure bizikleta denda

LARUNBAT ARRATSALDEZ IREKITA

Maritxu
drogeria
mertzzeria

Araba Ibilbidea 24
Tel.: 943 79 23 53
ARETXABALETAKO

KTIBOS

ZAPATA DENDA



Murubide 2 behea • Aretxabaleta • Tel.: 943 53 37 33

URKULU

FERRETERIA • BRIKOLAJEA
INDUSTRIA HORNIDURAK

Torrebaso pasealekua 16/ ESKORIATZA
Tel.: 943 71 30 30/ Faxe: 943 71 25 55
urkulu@cadena88.com

ERRETRATUZHARRA

Azbeko ugazabari omenaldia

Honako argazkia Azbe lantegi aurrealdean aterata dago, 1946ko abenduaren 7an. Langileek omenaldia egin zioten Benardino Zubiari, Azbeko ugazabari. Garai hartako beste hainbat bezala, gazterik hasi zen lanean, eta 50 urte lanean egin zituela-ko egin zioten omenaldia langileek. Argazkian, erdi-erdian ageri da Benardino, txapel, betaurreko eta beroki bat jantzita. Omenaldiko ospakizun garrantzitsuena bazkaria izan zen, lantegiko biltegian bertan egindakoa. Goizean, berriz, meza izan zuten. Zelan ez, hizpide dugun argazkia ere atera zuten.

Azbe lantegia aretxabaletar bik sortu zuten: Benardino Zubiak eta Eugenio Agirregabiriak. Benardino 1888an jaio zen, eta bederatzi urterekin herrian hasi zen lanean, Zerrajerak Aretxabaletan zuen lantegian. Horren ondoren, Beroan ibili zen lanean, soldadutzara joateko ordua iritsi zitzaion arte.

Madrilera joan zen soldadutza egitera, eta bertan koronel eta jeneralei barberu lanak egiten ibili zenez, diru apur bat irabazi zuen. Diru horrekin, 1918an, Benardinok eta Eugeniok lantegi bat ireki zuten, gaur egun Azbe dagoen lantegi parean, trenbidearen beste aldera. Sukalderako lapikoak egiten hasi ziren, baina handik gutxira, egun lantegia dagoen tokira aldatu eta sarrailagintzari ekin



zioten. Hasieran hamabost bat langile ziren, baina argazkia atera orduko laurogei lagun ari ziren Azben lanean. Eugenio 36ko gerra aurretik hil zen, eta haren seme bakarra ere handik gutxira, 39an. Semearen alargunari Benardinok zegokion zatia erosi, eta horrela Benardino geratu zen lantegian jabe. Azbe izena 1943an erregistratu zuten (Agirregabiria, Zubia, Benardino eta Eugenio izenenetatik osatutakoa da). Hasieran sozietate mugatua izan zen, eta horren ondoren, sozietate anonimoa.

Garai hartan Azbe lantegian lan egindako Sabino Bengoak kontatu digunez, eskulana nagusi zen orduan, eta somara —*destajuan*— egiten zuten lan, hau da, egunean zenbat produzitu, horren arabera izaten zen lansaria ere. Lehenengotan astero jasotzen zuten lansaria, eta geroago hamabostean behin. Langile gehienak aretxabale-tarrak baziren ere, eskoriatzarrik ere bazen. Eta emakumeak, jakina, gizonezkoak baino gutxiago. Fabrika-ko sirena hotsarekin sartzen ziren goizeko 8etarako lanera, eta eguerdian

bazkaltzeko tartea egin ondoren, arratsaldean bost eta erdietarako ateratzen ziren. Opor egunak ere askoz gutxiago izaten ziren, abuztuan 7-10 egun izaten zituzten jai. Gainera, jaiegunen erdiak errekuperatu egin behar izaten zituzten. Hainbat egunen ordu bete gehiago lan eginez errekuperatzen zituzten jaiegunak. Benardino 1971n hil zen, 83 urterekin.

Argazkia eta informazioa:
Sabino Bengoa eta Juanito Urreta

BEIRALAN



KRISTALDEGIA

Markoztatze profesionala prezio ezin hobean!

Herriko plaza 8, behea • Aretxabaleta
943 79 81 78 / 670 997 274



- Fiskala
- Kontablea
- Juridiko/laborala

Andra Mari Auzunea 3
ARETXABALETA
Tel. 943 79 29 26

GARBITU S. KOOP

Garbiketa orokorrak

Errekabarren 3- Behea
ARETXABALETA
Tel: 943 79 01 28

Angelines
AUTOZERBITZUA

Frutan eta txarkuterian espezialitatea

Mitarte 16 • 943 79 61 42
ARETXABALETA



- Kontabilitatea
- Fiskalitatea
- Lana
- Juridikoa

Aholkularitza

Basabe poligonoa F-O-10 (1. solairua) ARETXABALETA
Tel.: 943 71 21 12 - Faxa: 943 71 22 68



MAITE
ILE APAINDEGIA
Sarasate 1 behea
Tel. 943 79 59 05
ARETXABALETA

PAGALDAI

Opari denda Burrindegia

Durana 33 • Aretxabaleta
943 79 10 14

Zebarri?

U R L A T I K L A N D E T A R A

ESKORIATZA ETA LEINTZ GATZAGA / Egubakoitza / 2004ko abenduaren 3a / 190. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Zuriñe Velez de Mendizabal • Durana 11 20550 ARETXABALETA • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54 • Posta elektronikoa: zebarri@goiena.com • Lege gordailua: SS200/99

Lokalak etxebizitza bihurtzeko araua onartu berri du Eskoriatzako Udalak

ZURIÑE VELEZ DE MENDIZABAL

Eskoriatzako zenbait merkataritza-lokaletan etxebizitzak egiteko eskubidea aitortzen du Udalak. Hala ere, iragan egunean egindako osoko bilkuran hainbat aldaketa onetsi zituzten; egiten dabil-tzan etxeetan ezin izango dira egokitu lau urte barrura arte.

Eskoriatzan ere, merkataritza-lokalak etxebizitza bihurtzeko aukera dago beste hainbat herritan bezala. Hala ere, Udalak azaroan egindako ohiko osoko bilkuran gai horri buruzko erabaki berriak hartu zituen. Herriko lurrak bezala sailkatzen diren tokietan, lokalen birgaitzea egiteko aukera egongo da. San Juan, Hidalgo eta Gaztañadui kaleetan; Gorosarri plazan eta Santa Ana auzoetako etxebizitzetan birgaitu zitezkeen etxabeak. Iragan eguneko osoko bilkuran, erabakia aldatu, eta toki horietan egiten dabil-tzan etxe berriei buruzko erabakia hartu zen.

SALBUESPENAK

Udaletik hainbat salbuespen egongo direla adierazi dute eta aditzera eman dutenez, ezin izango da



GOIATZ ARANA

Hainbat merkataritza lokal egokitu dituzte dagoeneko bertan bizitzeko.

etxebizitza berrien etxabeetan obra horiek aurrera eramán. Momentuz, erabakia kaleratu eta lehenengo lau urteetan debekatu egingo zaie lanak egitea. "Jende ugari erosi ditu

etxabeak, eta batzuek negozioa egin gura dute. Hori eragotzi eta espekulazioa nolabait gelditzea lortu gura dugu", adierazi du Juan Carlos Bengoa alkateak hartutako era-

bakiari buruz. Oraindik, baina, egunean hartutako erabakia bulletin ofizialean kaleratu behar da, eta hilabete barru izango dela aurreikusitako dute.

Herriko lurrak bezala sailkatzen diren guneetan bihur daitezke etxabeak etxe

Eraikitzen dabil-tzan etxebizitzetako etxabeak ezin izango dira birgaitu lau urte barrura arte

Erabakiarekin, besteak beste, espekulazioa kontrolatu gura du Udalak



Gaztaina erre eguna ospatu zuten giro politean

Aurreko astean ospatu zuten Ezeiza ikastetxeko jolastokian gaztaina erre eguna. Hiru mahai prestatu zituzten, hosto, luma, gaztaina eta abarrek. Helburua horiek erabiliz eskulanak egitea zen. Ondoren, bi danbolinetan erre zituzten gaztainak jateko aukera izan zuten; eta baita txokolatea edateko ere. Hotza egin arren, jende ugari gerturatu zen. Era berean, nagusi ugari elkartu ziren gaztetxoei euren lanekin laguntzeko. Primeran pasa zuten denek. /Z.V.M.

LABUR

Herriko kontuak gaitzat hartu dituzte bi agerkarik

Eskoriatzari buruzko hainbat kontu kaleratu dituzte bi euskal agerrik azken egunotan. ARGIA astekariaren azaroaren 28ko alean, esaterako, lehenengo orrian agertu zen Xanti Iparragirre, Amets Arzallusek hari eginiko elkarrizketaren ildora. Bere bizitzaren nondik norakoak azaltzen ditu bertan. Bestalde, BERRIA egunkariak Aitzorrotz mendia gaitzat hartu zuen azaroaren 26an. Bertako kondaira izan zuen Juan Mari Ansak hizpide bere idazlanean.

TELEFONO JAKINGARRIAK

| | |
|----------------------------|--------------|
| ESKORIATZA | |
| Udaletxea | 943 71 44 07 |
| Udal bulegoak | 943 71 45 32 |
| Udaltzaingoa | 943 71 44 07 |
| Euskaltegia | 943 79 21 68 |
| Kultura etxea | 943 71 46 88 |
| Gizarte laguntzailea | 943 71 31 36 |
| Kirol etxea | 943 71 53 28 |
| Liburutegia | 943 71 31 35 |
| Luis Ezeiza | 943 71 53 56 |
| Arizmendi-Jose Arana | 943 77 20 25 |
| Arizmendi-Almen | 943 77 20 25 |
| Museo Eskola | 943 71 54 53 |
| Axtroki | 943 71 40 77 |
| HUHEZI | 943 71 41 57 |
| Osakidetza | 943 71 44 52 |
| Telesko | 943 71 49 17 |
| Taxiak | 943 71 40 59 |

| | |
|----------------------------------|--------------|
| BESTELAKOAK | |
| Eskualde ospitalea (Arrasate) .. | 943 00 53 00 |
| Gurutze Gorria (Bergara) | 943 76 55 76 |
| Ertzaintza (Arrasate) | 943 79 71 99 |
| Suhiltzaileak (Oñati) | 943 79 28 00 |
| Renfe (Zumarraga) | 943 72 15 15 |
| Renfe (Gasteiz) | 945 23 20 30 |
| PESA (Arrasate) | 902 10 12 10 |
| Larrialdiak (Arrasate) | 943 77 10 43 |
| SOS Deiak | 112 |

OHARRAK

ELIZKIZUNA
Abenduaren 7an otoitzaldia egingo dute San Pedro parrokian, 21:00etan, Seminario Egunaren barruan.

JOSTAILUEN ERAKUSKETA
Euskarazko jostailu eta CD-ROMak ikusgai egongo dira kultura etxeko erakusketa gelan. Abenduaren 9, 10, 11 eta 12an izango da; 18:30etik 20:30era aste barruan eta zapatu eta domekan 12:30etik 14:00etara.



Besteak beste, Eskoriatza eta Gatzagako alkateek sinatu zuten hitzarmena.

IKERKETA/ Badihardugu arduratuko da lana egiteaz

Herriko berbeta ikertuko dute

Z.V.M.

Laster hasiko dira herriko berbeta ikertzen. Lan horren ardura izango du Badihardugu euskara elkarteak. Martitzenean sinatu zuten akordioa. Aditzaera eman dutenez, lanek urte pare bat iraungo dute gutxi gorabehera.

Herriko euskara ikertu gura du Udalak, bertako berbetaren garapena nolakoa den ezagutzeko. Asmo hori dela eta, martitzenean Badihardugu euskara elkartearekin kontratua sinatu zuten udaltxeko osoko bilkuren aretoan.

Sinaduran parte hartu zuten Eskoriatzako Juan Carlos Bengoa, Leintz Gatzagako Joxerra Perez eta Aretxabaletako Arritxu Oliden alkateek eta eurekin egon zen Asier Sarasua, Badihardugoko lehendakaria.

HIRU ARDATZ
Hiru herrietako berbeta berreskuratzeko asmoz egingo da ikerketa. Hiru ardatz nagusi izango ditu ikerlanak. Batetik, berbeta jasoko da elkarrizketa bidez; bestetik, egindako lanaren emaitza behar den moduan gorde behar da; eta, azkenik, egindako lana zabalduko dute.

LABUR

Areto futboleko partiduak jokatu dituzte martitzenean Eskoritzako kiroldegian

Lehenengo aldiz antolatu du Eskoriatzako Kirol Elkartek hiru talderen arteko areto futbol lehiaketa. Datorren martitzenean, abenduak 7, izango da norgehiagoka. "Eskoriatzako taldearen ibilbide ona ikusita, herritarrak animatu gura ditugu kirol hori jarraitze- ra. Horregatik, ahalagindu gara zilarrezko dibisioan dabilzan taldeak ekartzen", eman du aditzaera Manolo Muñoz elkarteko lehendakaria. 18:00etan hasiko dira partiduak eta ez dute ezer ordaindu beharko areto futbolaz gozatu gura dutenek.



'Greban gaude' antzezlanaren Unibertsitatean

Gaur, 22:30ean, Lakrikun antzerki taldearen eskutik *Greban gaude* antzezlanaren egongo da ikusgai. Unibertsitatean izango da hitzordua. Hiru garbitzailearen arteko solasaldia izango da obraren ardatza. Ironiaz hainbat gai jorratuko dituzte: maitasuna, familia, sexua... Hirurak oso desberdinak dira, eta gai bakoitzari buruzko euren iritzia emango dituzte. Sarrera doan da.

ENRIKE MAZMELA BOLINAGA

HORTZ
KLINIKA

Eduardo Gorosari 3-1. esk.
Tel: 943 71 47 36
Eskoriatza

JAR EZAZU
HEMEN
ZURE PUBLIZITATEA

Ze barri?

GORKA GARAI
taxi gidaria

TAXI

Mugikorra:
607 318 560

ALZA

- Sukaldeko tresneria
- Lapiko lasterrak
- Zartagin eta paella-ontzi

Aingeru ibiltokia 3
Tel.: 943 71 41 31 Eskoriatza 20540

NAIRA
Taberna

Aranburuzabala 16
Eskoriatza. 943 71 46 71

AZKOAGA
ESTANKOA

943 71 48 77
Zure
Zerbitzura

TOKI ALAI
TABERNA

Karajiloetan
espezializatua

Tel.: 943 71 47 29
ESKORIATZA

LENIZ, C.B. KONPONKETAK

LENIZ
ESKORIATZA

TXAPA, MARGOA eta MEKANIKA

SUZUKI

Aingeru ibiltokia z/g. • Tel.: 943 71 50 61 • Eskoriatza

LEINTZ GATZAGA ETA ESKORIATZAK PROIEKTU BATERATUA DUTE

Wi-fi sistemaren bidez, Internet seinalea hobeto iritsiko da herrira eta baserrietara

Z.V.M.

Internet seinalea azkarrago eta arazo gutxiagorekin jasotzeko aukera eskaintzen du wi-fi sistemak. Horregatik, Gatzaga eta Eskoriatzako elizateetan laster egongo da erabilgarri. Satelite bidez igortzen da seinalea eta horretarako antena jarri beharko dute.

Astelehenean, azaroak 29, bilera egin zuten Leintz Gatzaga eta Eskoriatzako udaletako ordezkariak. Izan ere, bi herrietara wi-fi sistema eraman gura dute. Gatzagari dagokionez, satelite bidezko sistema herrira bertara eta baita baserrietara ere helarazteko asmoa dute; Eskoriatzari dagokionez, berriz, elizateetarako da bakarrik proiektua.

Hasiera batean bi herriek egitasmoa batera egitea pentsatu zuten; ondoren ezetz esan zuten, baina azkenean bi herrientzako bera izango dela adostu dute.

Wi-fi sistemaren abantaila nabaria izango da. Orain, ez telebista ezta Internet seinalea ez dira ondo iristen Gatzagara. Wi-fi sistemak satelite bidez bidaltzen du seinalea, eta askoz ere garbiago jasoko dute hartzaileek. Bestalde, horretarako antena jarri behar dela zehaztu du Jon Sasiainek, eta nahiz eta oraindik non jarriko den zehaztu ez, gutxi gorabehera finkatuta dagoela eman du aditzera.

Aurrekontu eskaera egina dago jada, eta Eusko Jaurlaritzari ere eskatu diote proiektua ikertzea.

EMATEN DITUEN ZERBITZUAK

Kabledun sare batek eskaintzen dituen zerbitzu berak ematen ditu wi-fi sistemak: Interneterako sarrera, posta elektronikoko zerbitzuak, sare korporatibo baterako sarrera...

Horrek hainbat abantaila emango dizkio erabiltzaileari. Izan ere, gura duena egiteko aukera eskaintzen dio kablerik gabeko sistema horrek; orain dauden arazoak alde batera utzita. Gatzaga



Seinalea jasotzen den edozein tokitik Internetera konektatzeko aukera egongo da.

Leintz Gatzaga eta Eskoriatzak elkarlanean jarriko dute martxan egitasmoa

Wi-fi sistemak ez du kablerik erabiltzen eta adituen esanetan, kostuak murrizten dira

Azkartasuna da satelite bidezko sistemaren ezaugarri nagusia

gara ez da oso ondo iristen seinalea, eta hainbat arazorekin egiten dute topo Interneteko erabiltzaileek. Hala, etxetik lan egiten dutenek, esaterako, azkartasuna nabaritu dute batik bat.

WI-FI ABANTAILAK

Wi-fi sistemaren abantailak nabariak dira. Adituen esanetan, bizkortasuna da sistema horren ezaugarrien artean gehien nabaritzen dena; informazioa jasotzeko azkartasuna, hain zuzen ere. Eta gaur eguneko gizartean oso baliagarri da hori; ahalik eta denbora laburrenean informazio gehien eskuratzeko baliabide egokia izango da.

Bestalde, sare fisikoak kentzen dira; hau da, ez dira erabiltzen beste sistemekin beharrezkoak diren kableak. Izan ere, satelite bidez jasotzen da seinalea, eta kable azpiegitura hori behar ez izateak kostuen aurreteak dakar. Edozein momentutan edozein tokitik datuak eskuratzeko aukera ematen du, beraz, sistema horrek. Hala ere, satelite bidez datuak jaso ahal izateko, antena bat jartzea ezinbestekoa da, eta halaxe egingo dute Leintz Gatzaga inguruan ere.

MUGIKORTASUNA EZAUGARRI

Hainbat adituen esanetan, Interneten etorkizuna hari gabekoa da, eta konexio-abiadura handia izango da abantailatariko bat.

Gainera, ez da mugikortasunaren ideia ahaztu behar. Izan ere, Internetera edozein tokitik konektatzeko aukera eskaintzen du wi-fi sistemak; etxe barrutik, lorategitik... Hori, neurri handi batean, kablerik erabiltzen ez duelako da posible.

Beraz, sistema berria erabilgarri dagoenean, abantailak izango dituzte gatzagarrek eta baita Eskoriatzako elizateetako biztanleek ere. Orain baino kalitate hobez jasoko dute seinalea, esaterako. Oraindik, baina, lanak noiz hasi finkatu behar dute, eta antena non jarri erabakitzea gertzen zaie.

FAGOR

Fagor Ederlan

Fagor Ederlan, S. Coop.
Torrebaso 7
20540 Eskoriatza
Gipuzkoa
SPAIN
Tel: +34 943 719 000
Fax: +34 943 719 001

M MONDRAGON
CORPORACION COOPERATIVA

**Txalaparta
taberna**

Aranburuzabala 25
ESKORIATZA

Aretxabaleta eta Eskoriatzako

Gremioen Gida



**ALTO DEBA
MARGOAK**

DEKORAZIO PINTURA
PINTURA INDUSTRIALA
FATXADAK

Tel.eta Faxes: 943 71 41 82 Poltsikokoa: 639 37 45 25



**J.SANCHEZ
ITURGINTZA**

- Bainurako gaiak
- Etxe barruko gas instalazioak
- Bainurako altzariak

Basabe poligonoa A - 2 - 10
ARETXABALETA
Tel.eta faxes: 943 79 69 32 Poltsikokoa: 689 58 79 12

Pintura eta dekorazioa



Gimbert

San Migel 13, behea C
ARETXABALETA
609 143 119



RADIO
ELECTRICIDAD
LEGAZPIA

"R.E.L.E."

Gotzon Beitia Lazkano

Denda:

Santa Ana 17, Eskoriatza
Tfnoa-Faxes: 943 71 41 65

Tailerra:

Santa Ana 12, Eskoriatza
Tfnoa-Faxes: 943 71 41 12

ESKORIATZA

AITZORROTZ
elektronika

- Telebista, audio eta bideo salmenta eta konponketa
- Instalazio elektrikoak
- Atezain automatikoak
- Antena kolektiboak
- Informatika

Aitzorrotz elektronika Tel.: 943 79 16 10
Otalora, 14 ARETXABALETA

Hnos. SAJERAS, C.B.

Margogintza
Dekorativo eta Industriala

San Pedro, 14 behea ESKORIATZA
Tel.-Faxes: 943 71 47 28
Arrasate Tel.: 943 77 16 66
Poltsikokoa: 608 92 11 18

FRIXI Eraikuntzak

Hormigoizko estrukturalak,
urbanizazio, kontratak
eta enpresen mantenimenduak

Aranburuzabala 56 ESKORIATZA
Tel. eta faxes: 943 71 55 15 Poltsikokoa: 629 51 39 22



Jon Axpe Oyanguren

OYANGUREN
Iturgintza

Aranburuzabala 15
ESKORIATZA
Tel.: 943 71 47 14
606 007 369
f.oyanguren@ctv.es

- Iturgintza
- Gasa
- Berogailuak
- Peetrolio-produktuak
- limitazioak

L. GONZALEZ

PINTURAK

Pintura orokorra eta enpapelatua

Basabe poligonoa F-6
ARETXABALETA
686 113 581

ARETXARGI

Modesto ROMEO
Aretxargi@euskalnet.net

BELORRIETA 15, BEHEA 20550 ARETXABALETA - GIPUZKOA

943 532 628 645 734 032

INSTALAKUNTZA ELEKTRIKOAK



Instalazioen mantenimendu osoa
Berokuntza • Gasa
Aire girotua • Haizeztatzea

Basabe industrialdea B-3. Aretxabaleta.
Tel.: 943 77 19 88. Faxes: 943 79 59 97



ALUMINIOA/P.V.C.a/POLIURETANOA
ALUMINIOA-EGURRA
PERTSIANAK ETA OSAGIAK



Araba ibilbidea, 17 eta 25
Tel.: 943 79 28 41 • Fax: 943 79 79 06
20550 Aretxabaleta (Gipuzkoa)
*E-mail: kurtzebarri@euskalnet.net



Basabe poligonoa D-2-1
117 posta kutxa
ARETXABALETA
Telefona eta faxes:
943 79 78 45
Poltsikokoa:
616 96 57 98

- Barruko zein kanpoko lorezaintza.
- Ureztatze sistemak: automatikoki, eskuz eta tanta-jario bidez.
- Loreontzi-euskarriak, balkonerak, eta abar.

ARETXABALETA
ITURGINTZA

Durana, 16-Tel.: 79 17 53
ARETXABALETA

J.J. ITURGINTZA
IRURE

URA
GASA
KALEFAKZIOA



MITARTE 15
ARETXABALETA

943 793 187

Aretxabaleta eta Eskoriatzako taberna eta jatetxeen gida

hemen bada
giro!

Mitartegarai



Aretxabaleta auzoa, Aretxabaleta
Tel.: 943 79 17 51

AKEITA
Taberna

Pintxoak eta ogitartekoak

Santa Ana 23
Tel.: 943 71 50 94
ESKORATZA



Matikua jatetsxea

Azatza auzoa ARETXABALETA 943 79 16 68

BASABE



Basabe poligonoa ARETXABALETA 943 79 91 84

H A I Z E A



Kafetegia eta taberna

Mitarte z/g • ARETXABALETA
Tel.: 943 79 88 60

ZARAIA
taberna

Goizeko 06:00etik irekita

Araba Ibilbidea 20 • ARETXABALETA
Tel.: 943 79 88 95

HIRUSTA JATETXEA

Zatoz gure sukaldea ezagutzera



Ilargi plaza 4. Tel. :; 943 79 06 57

Mirentxu



Hidalga 10
Eskoriatza. 943 71 41 67

Ezkutu
TABERNA



Zatoz gure musikaz gozatzera

Mitarte 9 ARETXABALETA Tel: 943 79 92 01

Taberna Berri



Durana 26, ARETXABALETA. 943 79 20 67

ARLUTZ

Gustuko musika

Mitarte 16. ARETXABALETA Tel.: 943 79 32 34

Dorleta
taberna

Bezeroen zerbitzura

Loramendi, 8
ARETXABALETA
Tel.943 79 94 15

ORLY

Herriko plaza
943 79 09 33
ARETXABALETA

LAGUNAK

DASTALEKU

Tel. 943714065

Gustora egoteko!

Intxaurtxueta 8. ESKORATZA

Aretz

Markole 5
Tel.: 943 79 14 67
ARETXABALETA

Plater konbinatuak
Ogitartekoak
Hanburesak
Pizzak
Oilaskoak eta
paellak eramateko

